

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

BERRIKUNTZAREN ETA EKONOMIA SUSTAPENAREN SAILA

1163

95/2011 ERABAKIA, otsailaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Arabako enpresetan prestakuntza emateko laguntza programaren 2011ko deialdia.

Maiatzaren 20ko 45/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu egiten da Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, eta sailaren eskumenetarik eta garatu beharreko funtzioetarik bat da "Arabako ETEetan prestakuntzarako laguntza plan eta programak kudeatu eta tramitatzea, horien giza balia bideen kualifikazio profesionala hobetzen eta haien lehiakortasuna sendotzen laguntzeko".

Horretarako, Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzak "Arabako enpresetan prestakuntza emateko laguntza programa"ren deialdia egiten du, prestakuntza jarduerak sustatzeko enpresetan, langileen gaitasuna eta berriro profesionalizatzeko ahalmena hobetzearen eta lanik gabeko biztanleria aktiboaren lane-ratzeko gaitasuna hobetzearen.

Horregatik, Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT

1.- Arabako enpresetan prestakuntza emateko laguntza programaren 2011ko deialdi publikoa onartzea, dagoen aurrekontuaren barruan. Eranskin gisa doan agiriak eta otsailaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2010 Erabakiaren bidez (2010eko otsailaren 10eko -asteazkena- ALHAOn argitaratua) onartutako oinarri orokorre arautuko dute deialdia.

2.- Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak 2011ko aurrekontuko 05.3.01.07.00.450.00.01 partidatik (xedapen erreferentzia: 105.467/000) ordainduko dira. Dirulaguntzetarako zenbatekoa 415.000,00 euro da.

3.- Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Gasteiz, 2011ko otsailaren 22a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Saileko foru diputatua, ARANTZA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.- Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren zuzendaria, HERNANDO LACALLE EDESOS.

ERANSKINA

ARABAKO ENPRESETAN PRESTAKUNTZA EMATEKO LAGUNTZA PROGRAMA

2011ko deialdiaren oinarriak

1. artikulua.- Helburua.

Laguntza deialdi honen helburua da etengabeko prestakuntzarako jarduerak eta enplegurako prestakuntza jarduerak bultzatzea, Arabako enpresetan.

2. artikulua.- Dirulaguntzak jaso ditzaketan jarduerak.

Bi eratakoak izan ahaliko dira diruz lagundutako jarduerak: prestakuntza ikastaroak eta prestakuntza premien diagnostikozko azterlanak.

2.1.- Prestakuntza ikastaroak

Irakaskuntza ekintzek diruz lagundu daitezkeen ikastarotzat hartzeko honako ezaugarriak izan behar dituzte:

- Aurreko bi deialdietakoren batean programa honetan ezin izan zuten dirulaguntza eskatu ezta jaso ere.

Disposiciones Administrativas

Acuerdos del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN ECONÓMICA

1163

ACUERDO 95/2011, del Consejo de Diputados de 22 de febrero, que aprueba la convocatoria del programa de ayudas a la Formación en las empresas alavesas para el ejercicio 2011.

El Decreto Foral 45/2008 de 20 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Innovación y Promoción Económica, establece entre las competencias y funciones a desarrollar por dicho Departamento, las de "Gestión y tramitación de Programas y planes de ayudas a la formación en las PYMES alavesas, con el fin de favorecer la mejora de la cualificación profesional de sus recursos humanos y fortalecer su competitividad".

A tal fin, la Dirección de Innovación y Promoción Económica convoca un "Programa de Ayudas a la Formación en las empresas alavesas", dirigido a potenciar la realización de actividades de formación en las empresas, con el fin de mejorar la cualificación y reprofesionalización de los trabajadores/as y la capacidad de empleabilidad de la población activa desempleada.

En su virtud, y a propuesta de la Diputada de Innovación y Promoción Económica y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

1.- Aprobar, dentro del marco presupuestario disponible, la convocatoria pública del Programa de Ayudas a la Formación en las empresas alavesas para el ejercicio 2011, que se regirá por el documento anexo y las Bases Generales aprobadas mediante Acuerdo 39/2010, del Consejo de Diputados de 2 de febrero, publicado en el BOTHA del miércoles 10 de febrero de 2010.

2.- Las subvenciones reguladas mediante este Acuerdo, se abonarán con cargo a la partida presupuestaria 05.3.01.07.00.450.00.01 del presupuesto de 2011, con referencia de contraído 105.467/000, hasta un importe de 415.000,00 euros.

3.- La presente convocatoria se publicará en el BOTHA y entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2011.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputada de Innovación y Promoción Económica, ARANTZA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.- Director de Innovación y Promoción Económica, HERNANDO LACALLE EDESOS.

ANEXO

PROGRAMA DE AYUDAS A LA FORMACIÓN EN EMPRESAS ALAVESAS

Bases de la Convocatoria 2011

Artículo 1.- Objetivo.

La presente convocatoria de ayudas tiene por objeto estimular la realización de actividades de formación continua y para el empleo en las empresas alavesas.

Artículo 2.- Actividades subvencionables.

Las actividades subvencionables podrán ser de dos tipos: Cursos de formación y Estudios diagnóstico de necesidades de formación.

2.1.- Cursos de formación

Podrán tener la consideración de cursos subvencionables, aquellas acciones docentes que:

- no hayan sido solicitadas y subvencionadas por este mismo Programa en alguna de las dos últimas Convocatorias anteriores.

• Enpresa espezializatuek edo enpresetakoak ez diren eta enpresa eskatzaileari lotuta ez dauden langile espezializatuek, ikastaroak emateko berariaz kontrataturikoek, emandakoak izan behar dira.

Ezin izango dira diruz lagundu barrurako diren ikastaroak, hau da, enpresako bertako edo eskumeneko enpresetako edo partaidetza duten enpresetako langileek emandako ikastaroak. Horiek horrela, prestakuntza ematen duen enpresa eta jasotzen duena lotuta badaude, Sozietateen gaineko Zergak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, barruko ikastarotzat joko dira jasotako ikastaro horiek.

Prestakuntza ikastaroak bi motatakoak izan daitezke:

2.1.1- Birziklatze ikastaroak:

Birziklatze ikastaroak izango dira Araban kokagunea duten enpresetako edo enpresa taldeetako langileei emandako prestakuntza ekintzak, baldin eta beren langileak gaitzeko edota berriro profesionalizatzeko badira, egitura funtzionala gorabehera.

Enpresako langile izango dira enpresak kontratatutako besteren konturako langileak, kooperatibetako langile bazkideak eta legez besteren kontura kontratatu ezin baina enpresari zuzenean lotutako langileak, nahiz eta langile autonomoen erregimen berezia izan.

2.1.2.- Enplegurako prestakuntza ikastaroak:

Enplegurako prestakuntza ikastaroak izango dira enpresek edo enpresa taldeek aurkeztutako prestakuntza ekintzak, baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- Lanik gabeko biztanleria aktiboari zuzenduta egotea, eta prestakuntza jaso duten pertsonak gaitzeko helburua izatea, laneratu daitezten. Prestakuntza ekintza horiek ikastaroa egiten duten ikasleen ehuneko 50 gutxienez laneratzea izan behar dute helburu. Ikastaroa amaitzean, gutxienez, 3 pertsona kontratatu behar dira, lanaldi osoko 6 hilabeteren baliokide izango litzatekeen epealdi baterako gutxienez.

- Enpresara sartu berriak diren langileei zuzenduta egotea. Prestakuntza ekintza hauen xede diren langileak, gutxienez, 3 izan behar dira, eta baldintza hauek betetzen dituztenak: enpresak eskaera aurkeztu den egunaren aurreko urtean zehar langabeziatik hartuak izatea eta, gutxienez, lanaldi osoko 6 hilabeteren baliokide den epealdi baterako kontratua egin izana.

Era berean, eta atal honen barruan, interes bereziko enplegurako prestakuntza ikastarotzat joko dira enplegua sortzea dakarten inbertsio berriei lotutako prestakuntza proiektuak, baldin eta honelako enplegu sortzea eragiten badute: 5 langile baino gehiago izanda, langileak ehuneko 10ean gehitzea adierazten badu aurreko urteko batezbestekoaren aldean, edota 15 lanpostu berri sortzen badira.

2.2.- Prestakuntza premien diagnosi azterlanak:

2.2.1: Diruz lagundu daitezkeen azterlanak:

Diru laguntza jasotzeko, azterlanek honako ezaugarriak izan behar dituzte:

• Langileen gaitasun urritasunak eta gaitasun profesionaleko beharizanak nolakoak diren jakiteko azterlanak, langileentzako prestakuntza plan egokiak diseinatzeko.

• Azterlan hauetan espezializatuta dagoen beste enpresa bati kontrataturikoak izan behar dira.

Laguntza eskaera egiten duten enpresek 2011ko urtarrilaren 1ean 15 langile gutxienez izan behar dituzte.

2.2.2: Diruz lagundu ezin daitezkeen azterlanak:

Ezin izango dira diruz lagundu barrurako diren azterlanak, hau da, enpresako bertako edo eskumeneko enpresetako edo partaidetza duten enpresetako langileek egindako azterlanak. Horiek horrela, azterlana egiten duen enpresa eta azterlana eskatu duena lotuta badaude, Sozietateen gaineko Zergak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, barruko azterlantzat joko dira diagnosi azterlan horiek.

Halaber, aurreko lau deialdietakoren batean arrazoi beragatik diagnosi azterlana egiteko laguntza jaso zuten enpresek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso.

• sean impartidas por empresas o personal especializado externo y no vinculado a la empresa solicitante, contratados al efecto.

No tendrán la consideración de subvencionables los cursos de carácter interno, entendiéndose por tales aquellos que son impartidos por personal de la propia empresa o de empresas filiales o participadas. A tal efecto, cuando la empresa que da la formación y la que la recibe estén vinculadas de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 16 del Impuesto sobre Sociedades, los cursos recibidos tendrán la consideración de cursos de carácter interno.

Los cursos de formación podrán ser de dos tipos:

2.1.1- Cursos de Reciclaje:

Acciones formativas impartidas a trabajadores de empresas o grupos de empresas radicadas en el Territorio Histórico de Álava y que estén dirigidas a la cualificación y/o reprofesionalización de su plantilla de trabajadores/as, independientemente de la estructura funcional a la que pertenezcan.

Se considerarán integrantes de la plantilla de la empresa a los trabajadores/as por cuenta ajena contratados por la misma, los socios/as trabajadores/as en caso de cooperativas y, en su caso, trabajadores/as directamente vinculados/as a la empresa que por ley no pueden ser contratados/as por cuenta ajena, estando obligados a cotizar en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos.

2.1.2.- Cursos de Formación para el Empleo:

Acciones formativas, presentadas por las empresas o grupos de empresas que cumplan alguna de las siguientes condiciones:

- que estén dirigidas a la población activa desempleada y tengan por objeto la cualificación de los/as formados/as para su inserción laboral. Estas acciones formativas deberán perseguir un grado de inserción mínimo del 50 por ciento del alumnado asistente al curso, con un mínimo de 3 personas contratadas a su finalización, por un período mínimo equivalente a 6 meses a jornada completa.

- que estén dirigidos a los trabajadores/as recién incorporados/as a la empresa. Estas acciones formativas estarán dirigidas a un mínimo de 3 trabajadores/as que hayan sido contratados/as por la empresa por un período mínimo equivalente a 6 meses a jornada completa y procedentes del desempleo durante el año anterior a la fecha de presentación de la solicitud.

Así mismo, y dentro de este apartado, tendrán la consideración de Cursos de Formación para el Empleo de especial interés, aquellos proyectos de formación ligados a nuevas inversiones que supongan una creación de empleo que, siendo superior a 5 trabajadores/as, represente un incremento de plantilla del 10 por ciento respecto a la media del año anterior, o alternativamente, una creación de 15 nuevos empleos.

2.2.- Estudios-Diagnóstico de necesidades de formación:

2.2.1: Estudios subvencionables:

Serán subvencionables aquellos estudios que:

• tengan por objeto conocer los déficits de cualificación y las necesidades de capacitación profesional en sus plantillas laborales, con el fin de poder diseñar planes de formación idóneos a cada una de ellas.

• sean contratados a otra empresa diferente de la solicitante y especializada en este tipo de estudios.

Las empresas solicitantes deberán tener en plantilla un mínimo de 15 trabajadores/as a la fecha de 1 de enero de 2011.

2.2.2: Estudios no subvencionables:

No tendrán la consideración de subvencionables, los estudios de carácter interno, entendiéndose por tales aquellos que son realizados por personal de la propia empresa o de empresas filiales o participadas. A tal efecto, cuando la empresa que realiza el estudio y la empresa para la que se realiza estén vinculadas de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 16 del Impuesto sobre Sociedades, los estudios-diagnóstico tendrán la consideración de carácter interno.

Así mismo no podrán ser subvencionados los Estudios-Diagnóstico solicitados por empresas que ya hubieran obtenido subvención por idéntico motivo, en alguna de las cuatro convocatorias anteriores.

3. artikulua.- Diruz lagundu ezin daitezkeen jarduerak.

Orokorrean ezarri ahal izango diren beste betekizun edo muga batzuk gorabehera, ezin izango dira diruz lagundu deialdi honetan jarduera hauek:

a) Enpresa kudeaketa, finantzaketa eta era horretako arloetan enpresako goi karguek eta goi mailako gaitasuna duten langileek egindako graduondoko ikastaroak, masterrak edo antzekoak.

b) Araututako hezkuntza eskaintzan sartuta dauden prestakuntza ekintzak eta hezkuntza sistemak onartutako titulazio ofiziala ematen dutenak.

c) Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako ikastaroak, hain zuzen ere, irabazteko xederik gabeko erakundeetan prestakuntza emateko laguntza programaren barruan diruz lagundutakoak.

d) Makinak eta ekipamendua erosteari lotutako ikastaroak.

e) Hizkuntza ikastaroak.

f) Jardunaldiak, mintegiak, azokak, simposiumak edo kongresuak.

g) Ofimatikaren inguruko ikastaro orokorrak: WORD, EXCEL,...

h) Prestakuntza programetan, enpresako edozein esparru funtzionalerako aholkularitza, analisi edo hausnarketa estrategikorako jardunak jasotzen dituzten ikastaroak.

i) Arabatik kanpo emandako ikastaroak, baldin eta beste lurralde historiko horretan antzeko eskaintzarik badago, kalitate aldetik nahiz eduki aldetik.

j) Gutxieneko maila ez duten prestakuntza jarduerak (500 euro baino gutxiagoko diruz laguntzeko oinarria) edo edozein eskatzailek, oro har, bere gain har ditzakeenak.

4. artikulua.- Enpresa onuradunak.

4.1.- Laguntza programa honen onuradun izateko, enpresek hurrengo betekizunak bete behar dituzte:

- Gizarte eta zerga egoitza Araban duten enpresak edo, bestela, gutxienez, ekoizpen edo zerbitzu zentroetako bat Araban duten enpresak izan behar dira. Nortasun juridiko propioa duten enpresa taldeen eta elkarteen kasuan, izaera bereko enpresek osatuta egon behar dute.

- Onuradunen jarduera ekonomikoa industriaren edo industriari lotutako zerbitzuen arlokoa izatea.

- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea, otsailaren 11ko 18/97 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai ebazpenaren uanean, bai dirulaguntzak jasotzeko uanean. Enpresa eskatzaileak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizaziorako kontu koderik esleituta ez badu, enpresako pertsona fisiko bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

4.2.- Programa honen ondorioetarako, jarduera ekonomikoa industriaren edo industriari lotutako zerbitzuen arloko enpresatza hartuko da honako hau: laguntza programa honetarako eskaera aurkezten duenean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZa) jarduera sailkapenari buruzko ondoko epigrafeetaren batean diharduena eta alta emanda dagoena:

- Enpresa jarduerak (lehenengo atala) direla eta, ondokoei dagozkien epigrafeak:

- 2 dibisioa, 21 eta 23 multzoei dagozkienak izan ezik.

- 3 dibisioa.

- 4 dibisioa.

- 5 dibisioko 504 taldea.

- 6 dibisioko 62 multzoa.

- 8 dibisioko 84 multzoa.

- 9 dibisioko 93 multzoa.

4.3.- Bestalde, laguntza programa honen ondorioetarako, 2011ko urtarrilaren 1erako ondokoak betetzen dituztenak hartuko dira enpresa txiki edo ertaintzat (aurrerantzean ETE):

- 250 soldatapeko langile baino gutxiago izatea.

- urteko 50 milioi eurotik gorakoa ez den negozio bolumena edo 43 milioi eurotik gorakoa ez den urteko balantzea aurkeztea.

Artículo 3.- Actividades no subvencionables.

Con independencia de otros requisitos o limitaciones que se puedan establecer con carácter general, no serán subvencionables en esta convocatoria las siguientes actividades:

a) Los cursos de postgrado o Master en áreas tales como gestión empresarial, área financiera, etc. realizados por personal directivo y/o altamente cualificado dentro de la empresa.

b) Las acciones formativas que formen parte de la oferta educativa Reglada así como aquellas que otorguen titulación oficial reconocida por el sistema educativo.

c) Los cursos que hayan resultado subvencionados por la Diputación Foral de Álava en el marco de su Programa de Ayudas a la Formación en entidades sin ánimo de lucro.

d) Los cursos asociados a la compra de maquinaria o equipamiento.

e) Los cursos de idiomas.

f) Las jornadas, seminarios, ferias, simposiums o congresos.

g) Los cursos generalistas de ofimática: WORD, EXCEL,...

h) Aquellos cursos que incluyan en el programa formativo actuaciones de asesoramiento, análisis o reflexión estratégica de cualquiera de las áreas funcionales de la empresa.

i) Los cursos impartidos fuera de Álava cuando existan ofertas similares, en calidad y contenido en dicho Territorio Histórico.

j) Aquellas actividades formativas que no posean una entidad mínima (base subvencionable inferior a 500 euros) o se entienda que pueden ser asumibles con carácter general por cualquier solicitante.

Artículo 4.- Empresas beneficiarias.

4.1.- Las empresas que deseen beneficiarse del presente Programa de Ayudas deberán reunir los siguientes requisitos:

- Ser una empresa con domicilio social y fiscal en Álava y/o que al menos tenga ubicado en dicho Territorio Histórico un centro de producción o de servicios. En el caso de agrupación o asociación de empresas con personalidad jurídica propia, deberán estar integradas por empresas que reúnan esa misma condición.

- que su actividad económica pertenezca al sector industrial o de servicios conexos a la industria,

- que se hallen al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con Hacienda, en los términos estipulados en el Decreto Foral 18/97, de 11 de febrero, y con la Seguridad Social, tanto en el momento de la resolución como en el momento del abono de la subvención. Cuando la empresa solicitante no tenga asignado código de cuenta de cotización en ningún régimen del sistema de Seguridad Social, deberán hallarse al corriente de la Seguridad Social todas las personas físicas socias de la empresa.

4.2.- A efectos del presente Programa se entenderá como empresa con actividad perteneciente al sector industrial o de servicios conexos con la industria, a aquella empresa que en el momento de presentación de la solicitud al presente Programa de Ayudas se encuentre dado de alta y desarrolle su actividad en alguno de los epígrafes de la clasificación de actividades del Impuesto de Actividades Económicas (IAE.) siguientes:

- Actividades empresariales (sección primera) cuyos epígrafes pertenezcan a:

- División 2, excepto los correspondientes a las Agrupaciones 21 y 23.

- División 3.

- División 4.

- Grupo 504 de la División 5.

- Agrupación 62 de la División 6.

- Agrupación 84 de la División 8.

- Agrupación 93 de la División 9.

4.3.- Asimismo, y a los efectos de este Programa de Ayudas, tendrá la consideración de Pequeña y/o Mediana Empresa (en adelante PYME) aquella que, a la fecha de 1 de enero de 2011:

- tenga menos de 250 asalariados/as,

- presente un volumen de negocios anual no superior a 50 millones de euros ó un balance anual no superior a 43 millones de euros.

4.4.- Sozietate publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek ezin dituzte laguntza hauek jaso.

4.5.- Ezin izango dute laguntza programa honen onuradun izan artikulu honen 2. puntuan adierazitako JEZaren epigrafeetakoren batean alta emanda ez dauden enpresak.

5. artikulua.- Ikastaroak egiten dituztenek bete behar dituzten baldintzak.

5.1.- Aurreko 2. artikuluan deskribatzen diren jardueren jasotzaileak Araban diren ekoizpen edota zerbitzu unitateetako langileak izango dira.

5.2.- Horretarako, Arabako enpresetako langile izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenak Arabako Foru Aldundiari ordaintzen dizkietenak.

5.3.- Ekoizpen edota zerbitzu zentroetako bat Arabatik kanpo izan baina zerga egoitza Araban duten enpresen kasuan, Arabako zentroetako langileei bideratutako prestakuntza ekintzak baino ezin izango dira diruz lagundu, baldin eta aurreko 4.2 paragrafoak xedatutakoa betetzen badute. Ikastaro berean enpresa bateko Arabako eta Arabatik kanpoko hainbat zentroetako parte hartzaile bako, Arabako enpresa unitateetako langile kopuruari proportzional zaion dirulaguntza baino ez litzateke emango.

6. artikulua.- Diruz lagundu daitekeen epealdia eta prestakuntza ekintzen iraupena.

6.1.- Prestakuntza ekintzak, osorik edo zati bat, 2011ko urtarilaren 1etik 2011ko azaroaren 15era bitartean egin beharko dira.

Hala ere, ikastaroen ohiko praktika kontuan hartuta, prestakuntza ekintzak 2010eko urriaren 1etik aurrera hasitako epealdiaren barruan hastea onartuko da, betiere eskolen zati bat 2011. urtean bada.

Ikastaroaren zati bat epe posible horretatik -2010eko urriaren 1etik 2011ko azaroaren 15era arte- kanpo egiten bada, epe horren barruan emandako orduak baino ez dira diruz lagunduko, eta ikastaroaren ordu guztiak kontuan izanda hainbanatu egingo da dirulaguntza.

6.2.- Diruz lagunduko diren ekintzen gutxienezko iraupena 8 ordukoa izango da.

6.3.- Prestakuntza ekintzetan, gehienez ere, 150 ordu diruz lagunduko dira, nahiz eta ekintza horrek gehiago iraun.

7. artikulua.- Prestakuntza ekintza motak.

Honelaxe katalogatuko dira laguntza programa honen bidez diruz laguntzeko proposatuko diren prestakuntza ekintzak:

- Prestakuntza espezifikoko ekintzak: irakaskuntza teorikoa eta zuzenean lanpostuan (bai enpresa onuraduneko langilearen lanpostuan, bai etorkizunean izango duenean) aplikatzeko moduko irakaskuntza praktikoa ematen dutenak, eta beste enpresa edo lan eremu batzuetan aplikatu ezin daitekeen gaitasuna ematen dutenak, eta aplikatu ahal izatekotan ere, oso modu mugatuan.

- Prestakuntza orokorreko ekintzak: bai enpresa onuraduneko langilearen lanpostuan, bai etorkizunean izango duenean aplikatuko den irakaskuntza, baina ez bakarrik, ezpada beste enpresa edo lan eremu batzuetan aplikatu ahal izango den gaitasuna ematen duena.

Salbuespeni buruzko Europako Batzordearen abuztuaren 6ko 800/2008 (EE) Erregelamendu orokorrak xedatutakoari jarraituz (2008ko abuztuaren 9ko Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), laguntza programa honen bidez eman daitezkeen laguntzak salbuesita egongo dira Itunaren 88. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako jakinarazpena egin behar izatetik.

8. artikulua.- Laguntzen zenbatekoak eta mugak.

8.1.- Laguntza programa honetan jasotako laguntzak diru bidez gautatuko dira. Dirulaguntzen zenbatekoa ondokoa izango da:

4.4.- Quedan excluidas de la condición de empresa beneficiaria, las sociedades públicas y entidades de derecho público.

4.5.- No podrán optar a ser beneficiarios de este Programa de Ayudas quienes no estén dados de alta en uno de los epígrafes del IAE señalados en el punto 2 de este mismo artículo.

Artículo 5.- Condiciones que deben reunir las personas asistentes a los cursos.

5.1.- Las personas destinatarias de las actividades descritas en el artículo 2 anterior, deberán ser trabajadores/as que pertenezcan a plantillas de unidades de producción y/o servicios ubicados en Álava.

5.2.- A estos efectos, únicamente se considerarán como trabajadores/as pertenecientes a una plantilla ubicada en Álava, aquellos trabajadores/as cuyas retenciones a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sean exigibles por la Diputación Foral de Álava.

5.3.- En el caso de empresas con domicilio fiscal en Álava que cuenten con centros de producción y/o servicios fuera de dicho Territorio Histórico, solo se entenderán como subvencionables las acciones formativas destinadas a personal de los centros radicados en Álava, que cumplan el apartado 4.2 anterior. Si en un mismo curso se diera coexistencia de participantes de centros de una misma empresa, radicados dentro y fuera de Álava, únicamente se concederá una subvención proporcional al número de personas empleadas que pertenezcan a plantillas de unidades empresariales ubicadas en Álava.

Artículo 6- Periodo de realización subvencionable y duración de las acciones de formación.

6.1.- Las acciones formativas deberán ser realizadas, en todo o en parte, en el periodo de tiempo comprendido entre el 1 de enero de 2011 y el 15 de noviembre de 2011.

No obstante, teniendo en cuenta la práctica habitual de los cursos lectivos, se aceptará que las acciones formativas puedan comenzar dentro del periodo comprendido a partir del 1 de octubre de 2010, siempre y cuando desarrollen parte de su actividad docente durante el año 2011.

En el supuesto de que una parte del curso se desarrollara fuera del periodo máximo posible -1 de octubre de 2010 al 15 de noviembre de 2011-, únicamente se considerará subvencionable el número de horas que impartido dentro de dicho plazo, procediéndose a efectuar un prorrateo con respecto al número total de horas del curso.

6.2.- La duración mínima de las acciones a subvencionar será de 8 horas.

6.3.- Las actividades subvencionables que excedan de 150 horas serán subvencionables únicamente hasta el límite máximo de esas 150 horas.

Artículo 7. - Tipología de las acciones de formación.

Las acciones de formación que se propongan para ser subvencionadas por el presente Programa de ayudas, serán catalogadas como:

- Acciones de formación específica: aquellas que incluyan una enseñanza teórica y práctica aplicable principal y directamente en el puesto de trabajo actual o futuro del trabajador/as en la empresa beneficiaria y que ofrece cualificaciones que no son transferibles, o sólo de forma restringida, a otras empresas o a otros ámbitos laborales

- Acciones de formación general: aquellas que incluyan una enseñanza que no es única o principalmente aplicable en el puesto de trabajo actual o futuro del trabajador/as en la empresa beneficiaria, sino que proporciona cualificaciones en su mayor parte transferibles a otras empresas o a otros ámbitos laborales.

En virtud de lo dispuesto en el Reglamento general de exenciones (CE) nº 800/2008 de la Comisión, de 6 de agosto de 2008, publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea del 9 de agosto de 2008, las ayudas que puedan ser otorgadas por este Programa de ayudas quedarán exentas de la obligación de notificación contemplada en el artículo 88, apartado 3, del Tratado.

Artículo 8. - Cuantías y límites de las ayudas.

8.1.- Las ayudas contempladas en el presente Programa de Ayudas, se materializarán a través de subvenciones que podrán alcanzar los siguientes importes:

8.1.1.- Birziklatze ikastaroak: dirulaguntzaren zenbatekoak:

a) ETEetarako: gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 75, prestakuntza orokorrerako jardueretan eta ehuneko 40, prestakuntza espezifikokoetan.

b) Gainerako enpresetarako: gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 55, prestakuntza orokorrerako jardueretan eta ehuneko 30, prestakuntza espezifikokoetan.

8.1.2.- Enplegurako prestakuntza ikastaroak:

a) ETEetarako: gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 80, prestakuntza orokorrerako jardueretan eta ehuneko 45, prestakuntza espezifikokoetan.

b) Gainerako enpresetarako: gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 60, prestakuntza orokorrerako jardueretan eta ehuneko 35, prestakuntza espezifikokoetan.

Eskatzaile bakoitzarentzat eta birziklatze ikastaroen eta enplegurako prestakuntza ikastaroen multzorako dirulaguntza, gehienez, 33.000 euro izango da, baldin eta interes bereziko proiektu izendatu ez badira. Izan ere, halakoetan muga hori gainditu ahal izango da "minimis" laguntzen arautegian (Europako Batzordearen abenduaren 15eko 1998/2006 (EE) Erregelamendua) ezarritakoaren arabera.

8.1.3.- Diagnosi azterlanak: onartutako gastu aurrekontuaren ehuneko 50erainoko dirulaguntza jasoko dute. Eta, gehienez ere, 6.000,00 euro emango da eskatzaileko.

Zenbateko hori 10.000,00 euro izan ahal da, baldin eta eskatzailea enpresa taldea bada.

8.2.- Ikastaroetarako adierazitako dirulaguntzak beste ehuneko 10 handitu ahal izango dira, baldin eta ikasleen artean ezinduen taldeak badaude. Gehikuntza hori ikastaroetan halako taldeetatik dagoen pertsona kopuruaren arabera izango da.

9. artikulua.- Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna.

9.1 - Dirulaguntza eskatu ondoren beste laguntzaren bat lortzen bada, berehala jakinarazi behar zaio idatziz Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari, eta horrek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposatu ahal izango du.

9.2.- Aurrekoa gorabehera, laguntzek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Deialdietan araututako laguntzek Europako Batzordearen abenduaren 15eko 1998/2006 (EE) Erregelamenduan ezarritako "minimis" laguntzen arauak errespetatutako dituzte.

- Programa honen bidez emandako laguntza bati beste laguntza bat edo hainbat laguntza erantsiz gero, berdin dio zein eratakoak diren eta zein erakundek eman dituen, dirulaguntza publiko edo pribatuak eman ohi dituzten erakundeetatik jasotako laguntzek guztira ezin izango dute gainditu diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua.

10. artikulua.- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

10.1.- Agiri hauek aurkeztu behar dituzte enpresa eskatzaileek:

a) Eskaera orriak, behar bezala beteta.
 b) Enpresari buruzko agiriak:
 - Enpresaren IFZren fotokopia.
 - Enpresak Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean dituela adierazten duen ziurtagiria.
 - Enpresaren memoria laburra, bertan, enpresa noiz eratu zen, zer bilakaera izan duen historian eta zein helburu izan dituen jaso beharko da.

c) Eskatutako ikastaro bakoitzari buruzko agiriak:

- Ikastaroaren programa.
- Ikastaroa emango duten irakasleen curriculum.

8.1.1.- Cursos de Reciclaje: la subvención podrá alcanzar:

a) para PYMEs: hasta un máximo del 75 por ciento del presupuesto aprobado subvencionable en las acciones de formación general y hasta un 40 por ciento en los casos de formación específica.

b) para el resto de empresas: hasta un máximo del 55 por ciento del presupuesto aprobado subvencionable en las acciones de formación general y hasta un 30 por ciento en los casos de formación específica.

8.1.2.- Cursos de Formación para el Empleo:

a) para PYMEs: hasta un máximo del 80 por ciento del presupuesto aprobado subvencionable en las acciones de formación general y hasta un 45 por ciento en los casos de formación específica.

b) para el resto de empresas: hasta un máximo del 60 por ciento del presupuesto aprobado subvencionable en las acciones de formación general y hasta un 35 por ciento en los casos de formación específica.

Se establece como límite máximo de subvención total a conceder por solicitante y para el conjunto de Cursos de Reciclaje y Formación para el Empleo presentados la cantidad de 33.000,00 euros, salvo que se trate de proyectos calificados como de especial interés, en los que se podrá superar este límite hasta lo establecido en la normativa de ayudas de minimis (Reglamento CE nº 1998 del Consejo de 15 de diciembre de 2006).

8.1.3.- Estudios-Diagnóstico: la subvención podrá alcanzar hasta el 50 por ciento del presupuesto de gastos aprobado, con un límite máximo de 6.000,00 euros por solicitante.

Esta cantidad podrá incrementarse hasta 10.000,00 euros cuando se trate de una agrupación de empresas.

